

noaua

2013 lehiaket

ENTITATE BATENTZAT
APLIKAZIO ONENAREN

IAMETZA INTERAKTI
Herrian Ihesi



Santixabel Jaiak
antolatzeko lehen bilera
deitu du Udalak

Luzuriagakoa,
prekarietateak
eragindako heriotza

Igande honetan,
Aginagako herri ondarea
ezagutzeko aukera aparta

app onenaren sarietako bat,

Asier Iturraldereentzat



OGI BERRI
ARTISAU OKINAK

**ETA ORAIN...
IKUSI FUTBOL
PARTIDUAK
GUREKIN!**



egunero 06:00tik 21:00ra (asteburutan ere)
PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

·EDOZEIN ASEGURU IZANDA
(OCASO, SANTALUCIA...)
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

**ASEGURUAREKIN IZAPIDE GUZTIETAZ
ARDURATZEN GARA ZUZENEAN,**

(MOMENTU LATZ HAUETAN ASEGURUAREN POLIZA ZENBAKIA
EDO ERREZIBOA EDO HORRELAKORIK EZ DUGU BEHAR,
ASEGURUAREKIN ZUZENEAN IZAPIDEAK EGITEN DITUGU)

943 36 21 63 (24H)

·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK
·Asegururik EZ duten familientzat Usurbilgo
beilatokia DOAN (gure eskutik)

info@funerariagonzalez.es www.funerariagonzalez.es

Lehenengo 6
erosleentzako,
garaje bikoitza
banakako
prezioan!

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

188.000 € tik

12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpi,

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1ª Behea
20009 Donostia

E.: contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com



Albistea iruditan

Santixabelak prestatzen hasteko garaia iritsi da

Datozen Santixabelak prestatzeko lanak abian dira jada. Antolaketei ekiteko lehen hitzordua finkatu dute, otsailaren 24rako, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean. Fes-ten egutegia finkatu eta jaietarako proposamenak bildu nahi dira lehen saio honetan. Antolaketa lanetan parte hartu nahi dutenei, beraz, Potxoeneara gerturatzeko gonbita luzatzen zaie. Hauxe da udal iturriek zabaldu duten deialdia: "iritsi zaigu berriz ere Santixabel Jaiak antolatzen hasteko garaia. Aurtengo Santixabel Jaien antolaketan parte hartu nahi baduzu, zatoz otsailaren 24ko bilerara!"

Eta bileraren helburuak ere aurreratu dituzte: "Bi lan egin nahi dira bilerara honetan. Santixabeletako egutegia finkatu eta jaietarako proposamenak bildu".



Irudian, oilasko biltzaileak. Artxiboko argazkia: Usurbilgo Udala.

Laburrean

Odol ematea, martxoaren 3an

Ohi bezala, arratsaldeko 18:00etatik 20:30etara anbulatorioan. Hitzorduari buruzko zehaztasun gehiago, gotatanta.com atarian, Gotanta izenez Facebook edo Twitter sare sozialetan edo 943 317 091 telefono zenbakian.

1956koen kinto afaria

Otsailaren 22an, larunbatez bilduko dira Antxeta jatetxean. 1956an jaiotako herritarrek, afa-ritara joan nahi badute, telefono zenbaki honetara deitu behar dute, otsailaren 21a baino lehen: 648 755 316 (Guillermo Tapia).

1979ko kinto afaria

Martxoaren 8an Urdaira sagardotegian antolatuko dute afaria. Izen emateko epea zabalik egongo da, martxoaren 6ra arte, "Errazkin bizikletak" saltokian. Argibide gehiagorako, deitu 943 576 379 telefono zenbakira (Arkaitz).

noa.ua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil
943 360 321 // elkarte@noa.ua.com // www.noa.ua.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herra!

Elkarteko lehendakaria:

Ana Aizpurua.

Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Bea Alda,
publizitatea@noa.ua.com.

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noa.ua.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,
Aizpea Aizpurua.

Banaketa: Olatz Rezola, Arantxa
Zulaika.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria
Jesus Urbieta, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,
Jon Etxabe, Alazne Begiristain,
Denis Elortza, Pello Aranburu,
Xabier Aranburu, Inma Balda,
Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,


Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,
Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia
Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza, Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Luken Arkarazo

Elkarrengandik ikastearen beharra

Denok dugu zerbait esateko. Zerbait ezberdina, berezia, onuragarria besteekin elkarbanatu dezaguna. Badakit oso entzuna dagoen topikoa dela, baina bizitza ikasteko egina dago. Nahi eta nahiezkoa da ikastea, nahi eta nahiezkoa berrikuntzak barneratzea. Galtzea aurkitzeko, aurkitzea, berriz ere galtzeko. Norberaren esku dago ordea, jakintza horiek kanporatzea, besteekin berezi egiten gaituen hori elkartrukatzea. Helburu horrekin sortu dugu, Usurbilgo Gazte Asanbladatik, Udako Eskolen ideia. Bitxia da eta askotan ez gara ohartzen, lagun nukleo (deitu koadrila deitu x) berean, zein jakintza ezberdineko pertsonak biltzen garen. Ba pentsa, 6.000 pertsonako herri batean, zenbateko jakinduria bildu daitekeen. Horren gehiengo gehienontzako gordea,

nola liteke? Aberastasun guzti hori estaltzen duen galtzada altxatzea da Udako Eskolen helburua, bizipen eta eduki guzti horiek denon begietara-ko loratzea.

Eta ez pentsa, jakintza esaten ari naizenean, soilik ikasketa akademiko-
ei edo lanbideetan eskuratutako esperientziei buruz ari naizenik. Jakintza esatean, garai batean berria izan zenaz eta guretzat onuragarria izan denari buruz ari naiz. Zentzu batean, gure bizia, edota bizia ulertzeko modua aldarazi digun horretaz. Bolivian brigadista edo New Yorken agente komertzial modura bizitu zenuenaz, musika talderen batekin gira hartan ikasitakoaz, kirolari profesional izateak suposatuz dezakeenaz... Edota urteetan zehar eta egunero egunero goizeko 6etan esnatu eta 8 ordu lan egiteak erakutsi dizu-

nez, Euskal Herriko mendi ezberdina lasterka igarotzen sentitzen duzunaz, auto istripu hartatik ikasitakoaz, lau urteko gradu hura burutzen barneratu zenuenaz edota gurasoekin bizitzetik, okupa etxe batean bizitzeak esan nahi duenaz. Ikaragarri harririkoa ginateke, tabernan goizero gure alboan kafetxoa hartzera esertzen den horrekin hitz egingo bagenu. Albokoa aberastu duenak, gu ere aberastu gaitzakeelako.

Txapa filosofiko guzti honekin esan nahi dudana zera da, udan burutu nahi dugun ekimena ez dagoela ez inondik inora arautua. Nahi duenak, nahi duenaz hitz egin lezake, nahi duen formatuan, nahi duen modura. Betiere euskara eta Gazte-txeari lehentasuna emanez. Ez dut ekimena beraren inguruan asko hitz egin, eta ez dut egingo, aurreko aste-

an, aldizkari honetan eta gai honen inguruan Ugaitz Agirri elkarriketata bat egin zitzaiolako (badakit titularrak behintzat irakurri zenuela).

Agian pentsatuko duzu, zer demontrek bultzatzen gaituen hau gutzia egitera. Zaila izango dela jende aurrean sekula hitz egin ez duen jende multzoa horretara bultzatu eta animatzea. Arrazoi duzu, gaur egungo gizarte individualista honetan, pantaila argidun baten aurrean isolatzen gara, gauza berriak topatu eta haietaz ikasteko helburuarekin. Zergatik antolatuta nahi ditugun Udako Eskolak? Ba erantzuna nahiko sinplea da: ELKARRENGANDIK ikasteko beharra ikusten dugulako. Egunero, une oro, hitz egiten baitugu gauza txiki-txiki, egunerokoaz, baina oso gutxi betetzen gaituen horretaz.

Aritz Gorriti | Luken Arkarazo | Idoia Torregarai | Luis Aranalde | Maialen Unanue | Joxe Piñas | Imanol Ubeda | Nerea Zinkunegi

Usurbil FT eta DYA, bat bateko heriotzak saihesteko elkarlanean

Otsailaren 2an, Tolosa futbol taldeko jokalaririk Urtzi Gurrutxaga bihotzkoak jota hil zen Donostiako Berrioko futbol zelaietan, ohorezko mailako partida bat jokatzen ari zirenean. Larrialdi zerbitzuek bertan artatu eta Donostia Ospitalera eraman zuten arren, hil egin zen. Halako bat bateko heriotzak saihesteko, kirol instalakuntzetan desfibrilagailuak jartzea eskatzeko sinadurak biltzen hasi dira. Eta guneotako

langileentzako ere, horrelako egoeretan nola jokatu jakiteko prestakuntza jasotzea eskatzen dute.

Gertaera guztion harira, Usurbil FT-k DYArekin batera, gai honi loturiko prestakuntza saio bat antolatu dute, ostiral honetarako, otsailaren 21erako, iluntzeko 19:00etatik 21:00etara DYAk egoitza. Doakoa izango den ikastaroa, 16 urtetik gorako Usurbil FTko jokalaririk, entrenatzaile eta zuzendaritzako kideei

zuzendua dago.

Interesdunek, Usurbil FT-ren Hareneko egoitza eman beharko dute izena. Ikastaroan parte hartzeko alde aurreko osasun ezaguerarik izate ez da beharrezkoa izango.

"Denborak berebiziko garrantzia du"

Kanpoko Desfilbrigailu Erdi Automatikoa erabiltzen eta bihotz biren suspertzea egiten ikasi ahal izango dute ikastaroko parte har-

tzaileek. Modu praktiko, erraz eta sinplean. Prestakuntza saio hau giltzarria izan liteke, kirol neurketetan bat batean gertatzen diren ezbeharren aurrean erreakzionatzeko.

DYA-tik gogorarazten dutenez, "jakin behar duzu, egoera larri jakin batzuetan, denborak berebiziko garrantzia duela eta suspertze teknikak berehala egiten hasteak bizi-raupen aukerak %70era igo ditzakeela".

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
 San Esteban 5, boxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
 Kale Nagusia 10, 1.C4
 Tlf 943 37 08 78
 20170
 USURBIL

Maileguak eteteko eskaera, banku atariraino



Protesta egin zuten aurreko astean, Donostiako hainbat bankuetxeren atarietan.

Aurreko legegintzaldian Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak, Europako Banka Publikoa, La Caixa eta Banesto bankuekin sinatu zituzten maileguok etetea eskatu zuen otsailaren 14an, Erraustetaren Aurkako Herri Plataformen Koordinakundeak, Donostiako Askatasunaren Hiribidean burutu zuen protesta ekintza baten bidez.

Ondoko irudian ageri diren moduan, kea zerion erraustegiko tximinia moduko bat jarri zuten, kontratuok indarrean mantentzen dituzten La Caixako egoitza atarian. Elkarretaratze unean bertatik pasatzen ari ziren oinezkoen eskuorriak

banatzen aritu ziren Koordinadorako ordezkariak. Ekimen honen bidez, aipatu moduan, indarrean jarraitzen duten maileguok bertan behera uztea eskatu zuten. Maileguokin bukatzeko bi bide daude, euren esanetan: "bata, bankuek kontratuak berrikustea, ezabatzea, epaitegietara joan behar izan gabe, Erresuma Batuan egin zuten bezala. Honetarako herritarren presioa behar beharrezkoa izango da. Bestea, epaitegiek La Caixa eta Banesto kontratuak eta sortutako zorra ezabatzera eta kobratutako dirua itzultzera behartzea. Honetarako Gipuzkoako erakundeek dagokion auzi-eskea egina dute eta epaiketa otsailean egitekoa da".

"Dena ondo lotuta uzteko" sinaturiko maileguak

Maileguon atzean, zenbateko dirutza dagoen gogorarazi zuten beste behin ere Erraustetaren Aurkako Herri Plataformen Koordinakundetik:

■ Europako Banka Publikoarekin: 195 milioi euro.

■ La Caixa eta Banesto bankuekin: 68 milioi euroko inbertsioa azpiegituren mantentze lanetarako eta beste 5 milioi euro BEZA ordaintzeko.

Gogoan dute, 2011ko udal eta foru hauteskundeetarako bost egun baino falta ez zirela sinatu zituztela maileguok, orduko Foru Aldundi eta GHK-ordezkariak, EAJ-PNV, PSE-EE eta PPren babesarekin, eta bi helburu betetzeko asmoz, "Zubietako erraustegia eraikitzeko behar ziren 473 milioiak lortu eta dena ondo lotuta uzteko", Koordinadoratik salatu dutenez.

Hilero interesak ordaintzen

Maileguok indarrean diren bitartean, "Gipuzkoako erakundeek hilero ordaindu behar dituzte interesak, nahiz eta mailegurako ez erabili". Eta bada beste eragin bat ere; "mailegu honi uko eginez gero, bankuek kalte-ordain handia kobratzeko eskubidea izango lukete". Horregatik, bankuotako baten atarian bildu ziren otsailaren 14an, maileguok bertan behera uztea eskatzeko.

Erraustegiaren inguruan abian zen ikerketa artxibatu dute

Zubietan eraiki asmo zegoen errauste planta, iraganeko kontua dela berrestera datorren albisteak zabaldu da hedabideetan. Behin behinean artxibatu egin baitituzte, Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak aipatu egitasmoa gelditzeko hartutako erabakiaren aurrean, EAE-ko fiskal nagusiak hasiak zituen diligentziak. Ez dago nahikoa frogarik kereilarik edo salaketarik jartzeko.

Uztailaren 12an jakinarazi zuen Kontsurtzioak, erraustegia eraiki asmo zuten enpresekin zituzten kontratuak eteteko asmoa. Eta horren haritik, EAEko fiskal nagusi Juan Kalparsorok, Kontsurtzioak hartutako erabaki hark eragin zezakeen "desfase ekonomikoari" buruzko ofiziozko ikerketa abiatuko zuela jakinarazi zuen. Aipatu moduan, zazpi hilabete beranduago jakin denez, frogatuta

gatik abian zeuden diligentziak artxibatu dira behin behinean.

Azpiegitura alternatiboen aurkezpena, datorren astean

Hondakinen kudeaketari loturiko ika-mikak alboratu eta orain, arduraz jokatzeko garaia dela zioen Gipuzkoako Foru Aldundiko ingurumen diputatu Iñaki Errazkinek, epaitegietatik heldutako albiste hau jakin ostean. "Fiskalak ez du aurrera jarraitzeko arrazoirik ikusi. Erraustegia alboratzeko erabakia zuzena eta legezkoa da. Ez hori bakarrik: ona da ingurumenarentzat eta gipuzkoarren osasun eta ekonomiarentzat", adierazi zuen.

Adostasunak bilatu eta erabakiak hartzeko unea da orain, arduratsu jokatzeko garaia, Errazkinek esanetan. "Denok arduraz jokatu behar dugu gai

honetan: ordezkari instituzionalek, alderdi politikoei, komunikabideei... Hondakinei buruzko polemikaren garaia bukatu da. Beste eszenatoki batean gaude, non hondakinak modu arrazional eta iraunkorrean eta adostasunez kudeatzeko aukera izango dugun. Utz ditzagun alde batera higitze estrategia antzuek, eta elkarrekiko errespetuak eraiki dezagun denon artean hondakinak kudeatzeko Gipuzkoak behar duen sistema", luzatu du gonbita ingurumen diputatuak.

Gai honi lotuta, garai berri honetan eman asmo duen hurrengo urratsa iragarri du Foru Aldundiak: etorkizunean, prebentzioan eta birziklapenean oinarritutako diren hondakinak kudeatzeko azpiegitura alternatiboen berri emango diete Batzar Nagusietan ordezkariak duten talde politikoei. Datorren astean izango da; otsailaren 24an eta 26an.

Prekarietateak eragindako heriotza



Lan istripuak salatzeako elkarretaratzeak egin ziren Luzuriagan.

Urtea hasi zenetik lan istripuek eragin duten seigarren heriotza salatu zuten usurbildarrek otsailaren 12an, Mikel Laboa plazan egin zen elkarretaratzean. Oraingoan ezbeharrak herriko enpresa batean gertatu baitzen; Luzuriaga lantegian, urtarrilaren 30ean. Biktima, 38 urteko errumaniarra. Alduntzar azpikontratarako lan egiten zuen. Urtarrilaren 30ean, makinen prebentzio lanetan ari zela lubaki batera erori zen. Geroztik, zainketa intentsiboetako unitatean egon da egoera larrian. Joan den aste hasieran hil zen.

Azken heriotza hau eta hainbat langileek pairatzen dituzten lan baldintza gogorrak salatzeako, "Lan istripu gehiago ez! Prekarietatea hiltzailea!" lelopean burutu zen Mikel Laboa plazako elkarretaratzea. Azken lan istripu hau salatu zen mobilizazio honen bidez, hildako langilearen senide eta lagunei elkartasuna adierazi

LUZURIAGAN HILA

**Urtarrilaren 30ean,
lubaki batera erori zen.
Geroztik, zainketa
intentsiboetako
unitatean egon da egoera
larrian. Joan den aste
hasieran hil zen**

zitzaien. Lan istripuak saihestu daitezkeela, halako gertaera gehiago ezin direla onartu eta alor honetan egiteko asko dagoela gogorarazi zen. Eragile eta erakundeen arteko elkarlanean deia ere egin zen.

Lankideen elkartasun ekimena

Mikel Laboa plazako mobilizazio aurreko orduetan, aipatu heriotza salatzeako, Langileen Batzordeak deituta, bi orduko lan uztea egin zuten Luzuriagako langileek, otsailaren 12an, eguerdi partean. Lantoki atarian biltzen joan ziren, "Lan istripurik ez!" leloa zerman pankartaren bueltan. He-

riotza gertatu eta ordu gutxira, Langileen Batzordeak hartutako erabakietako bat izan zen bi orduko lan uztea egitea. Baita langileen senideei, doluminak adieraztea ere. Honez gain, elkartasun ekimen bat ere martxan jartzea adostu zuten; langile bakoitzak hiru lan orduz irabazitako soldata zatia, hil berri den langilearen bikote eta senideei laguntzera bideratzea.

Zero tolerantzia, lan istripuekin

Luzuriagako Langileen Batzordeak deituriko bi orduko lan uztearekin bat egin zuen LAB sindikatuak eta prentsa ohar bidez jakitera eman zutenenez, "bere senide eta gertukoie eta oro har langile klaseari bere babesa eta elkartasuna adierazi nahi die". Laneko gaixotasun eta lan istripuekiko zero tolerantzia izan behar dugula gaineratzen dute aipatu sindikatutik. Eta halakoak saihesteko, LAB-en esanetan, "eredu aldaketa bultzatu be-

har dugu, gure osasun eskubidea egiazkoa izan dadin aldaketa politikoa, ekonomikoa eta soziala aldarrikatuz".

Aldaketa, langileen eskutik etorriko dela diote eta gogorazten dutenez, "langileok, bizi ahal izateko egiten dugu lan eta ez, saiakera horretan bizia galtzeko. Lan istripuak ez dira bizitzako gertakari arruntak, langile bat hiltzea ez da lanaren ezaugarri bat. Ez, lan istripuak patronalak lan egiteko orduan ezartzen dizkigun baldintza eta lan egiteko moduen emaitza dira. Beste behin ere hildakoa langile gazte bat da, etorkizun eta lan baldintza hobetuz bila etorria zena gure herrira".

Seigarren hildakoa, hilabete pasatxoan

Victorio Luzuriaga enpresan hil berri den langilearekin, 6 dira jada, urtea hasi zenetik Euskal Herrian lan istripuetan hil diren lagunak. Haietako bi, Gipuzkoan. Azkena, Usurbilen.

Udalaren adierazpen instituzionala

Luzuriagan lan istripuz larriki zauritutako langilea hil zela jakin eta ordu gutxira deitu ziren mobilizazioekin bat egin zuen Ernai Usurbil gazte erakundeak, baita Usurbilgo Udaleko udalbatza osatzen duten udal talde guztiek ere. Gertara honen harira, udal adierazpen bateratua kaleratu zuten EH Bildu, Hamaikabat, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek:



Mikel Laboa plazan elkarretaratzea egin zen otsailaren 12an.

Luzuriagan gertatu den lan- ezbeharra dela eta Usurbilgo Udalaren adierazpen instituzionala

Usurbilgo Luzuriaga lantegian ari zen I.O.S. langileak sufritutako lan istripua deitoratu nahi dute Usurbilgo Udaleko EH Bildu, Hamaikabat, PNV eta PSE-k. Heriotza salatzeke egingo diren ekitaldietan parte hartzeke deia egin nahi dugu. Halaber, hildakoaren senide, lankide eta lagunei elkartasuna adierazi nahi diegu.

Usurbilgo EH BILDUK, Hamaikabat, PNV eta PSE-k lan-

ezbeharren aurka konpromiso eraginkorrek exijitzen dituzte. Istripuak eta ezbeharrek ekidin daitezke, baldin eta alde guztien partetik neurriak jartzen baditugu. Egoera prekarioetan lan egiten dutenek horrelako istripuak sufritzeko aukera gehiago dituzte, eta horregatik diogu oraindik lan asko dagoela egiteke.

Zentzu honetan, bereziki salatu behar dugu istripua berri ere azpikontratatuak enpresa batean gertatu dela.

UDAL ADIERAZPENA

“Egiturazko arazo honi aurre egiteko, funtsezkoak dira prebentzioa, prestakuntza, lan segurtasuna eta osasunaren kontrako delituen jazarpena”

Beste behin ere azpikontratazioak eta lan-istripuak eskutik datozela frogatua geratu da.

Izan ere, krisi ekonomikoaren ondorioz, segurtasun neurriak aplikatzeko orduan lasaitasuna antzematen da enpresa guztietan, baina batez ere azpikontratatueta.

Egiturazko arazo honi aurre egiteko, funtsezkoak dira prebentzioa, prestakuntza eta lan segurtasun eta osasunaren kontrako delituen jazarpena. Norabide horretan lan egin behar dute, hain zuzen ere, gizarte eta ekonomi arloko eragile eta erakunde publikoek.

Era berean, Udal talde hauek bat egiten dute konbokatutako diren hitzorduekin, bertan parte hartzeke deia eginez:

1. Luzuriagako Enpresa Komiteak elkarretaratzea deitu du 13.00etatik 15.00tara lantegi aurrean.

2. Elkarretaratzea 19,30tan Mikel Laboa plazan, “Lan istripu gehiago ez. Prekaritatea hiltzailea” lemapean.

USURBILGO UDALA (EH Bildu, Hamaikabat, EAJ-PNV eta PSEko zinegotziak).

377 langabetu urtarrilean, goia jotzetik gertu berriz

Igoera orokorra izan da, bai Usurbilen, bai Buruntzaldean, baita Gipuzkoa mailan ere. Usurbilgo kasuan, krisialdia hasi zenez, azken urteotan erregistratu den langabetu kopuru altuenetik (382) gertu gaude berriz ere.

2014ko urtarrilean 377 langabetu zenbatu ditu udalerritan, Estatuko Enplegu Zerbitzuak. Abenduan baino 11 langabetu gehiago, emakumezkoen artean eman den gorakadagatik. Abenduan 188 emakumezko usurbildar zeuden lanik gabe. 17 gehiago urteko lehen hilabetean, 205 gutzira. Gizonezkoen artean, behera egin du langabezia tasak. Aben-

duan 178 langabetu zeuden, urtarrilean 172. Sektoreka, zerbitzuek biltzen jarraitzen dute langabetu kopuru altuena. Gorakada nabarmena ere, bertan eman da urtarrilean.

Langabetu kopuruak gorantz egin duen arren, kontratazioak ere gorantz egin du aurreko hilabetean. Abenduan 263 lan kontratu erregistratu ziren. Urtarrilean 330. Gehienak, ohi bezala, aldi baterako, gizonezkoentzat eta zerbitzuen sektorean.

Bi mila langabetu gehiago Gipuzkoan

Udalerritan honetako langabeziatasun eman den gorakada, Burun-

taldean eta Gipuzkoan ere islatu da. 5.000 langabeturen muga gainditu da Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte, Urnieta eta Usurbilen. Abenduan baino 314 langabetu gehiago zenbatu dira urte hasiera honetan.

Udalerritan guztietan gorantz egin du langabezia. Baita Gipuzkoan ere. Iazko urte amaieran baino 2.204 langabetu gehiago zenbatu dituzte urtarrilean. 2014ko lehen datu ezkorrek, segidan zerbakitan.

Sektorearen arabera:

Nekazaritza: 6.
Industria: 68.
Eraikuntza: 41.
Zerbitzuak: 247.

Aurretik lanik gabe: 15.

Buruntzaldea: 5.114.

Andoain: 1.121.
Astigarraga: 351.
Hernani: 1.411.
Lasarte-Oria: 1.459.
Urnieta: 395.
Usurbil: 377

Gipuzkoa: 48.816.

Erregistraturiko lan kontratuak: Guztira: 330.

Aldi baterakoak: 318.
Zerbitzuen sektorean: 285.
Sexuaren arabera: 200 lan kontratu gizonezkoenak, 130 emakumezkoenak.



AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

Aste Santurako proposamena

Zuberoan ez da saltsarik falta. Lau egun, lau ibilbide ezberdin. Ostegunean, iritsi eta arratsaldean Oloroe (Oloron) herria ikustea aholkatzen dizuet. Ez da Zuberoa, Biarno baizik, nolabait esateko "gure lehengusu-propioen" lurralde ederra. Atharratzetik bi urratsera dago autoz eta gustatuko zaizue Pirinioaren oinetan dagoen Oloroe zaharra.



Ostiralean, bi erreka-zulo espektakular, bi arroila. Atharratzetik mendi aldera abiatuta, bidetik errez iristeko modukoak. Kaketako arroila beheko zuloatik bisitatzen da, bi alboetan pareta izugarriak, oinez ibiltzeko ondo prestatuta dago. Eta ondoren, Holtzarteko arroila goitik ikusiko dugu, kable gainean eraikitako zubi zoragarriaren gainetik; Holtzartera ere oinez berehala iristen da, aldapatxo batzuk igota.

Larunbat goizean, estreina Mauleko azokatik bueltatxo bat eman eta gero beste ibilaldi polit bat: Oskixe gainetik oso hurbil dagoen San Antoniko ermitatik abiatuta zehar-zehar Muskildiraino, dena beheraka. Muskildin, kamio bazterrean, Azkorria gaztandegia dago eta... justu Larunbat Santuz ate irekien eguna egiten dute. Aprobetxatu Zuberoako artzainen gazta goxoa dastatzeko.

Igandean Baxenafarroako Donapaleu herrian ezagutzeko aprobetxatuko dugu; baina harantzako bidea egin dezakegu Pagolatik barrena: mapan errez aurkituko duzue nondik joan, GPSean zer esanik ez. Eta azken egunean, astelehenean, herrira abiatu baino lehen ez ahaztu Atharratzeko azokarako bisita.

Izan huntza, lagunok, eta bizi uros.



SANTUENEA

PAKO AGUDO

Tapersex

Olatu, aire eta euriz beteriko negu honetan norberak bere epeltasuna bilatu behar... Kostaldea txikitu dituzten olatuak ez dira gure auzoraino iritsi, beraz Aialde-Berri sagardotegia toki aproposa dugu sagardo eta txuletz gozatzeko beste behin ere. Azken urteotan Oriia ibaiak emandako arazoez libre daude aurten eta hori denok eskertuko dugu.

Inauteriak ere gertu. Lagun edo familiarekin mozarroa prestatzeko aitzakiarekin elkartu, neguaren grisa gure buruan baztertu eta koloretz betetzeko aukera polita ere. Norberak bilatu behar du udaberria bere buruan, eta horretarako beti aukera dago.

Ez da egun asko auzoan Tapersex bat antolatu zutela, Usurbilen aritzen den zumba taldekoek. Berrogei pertsonatik gora, giro bikaina, lotsarik ez eta berriz errepikatuzko esperientzia izan omen zen. Gizonezkoek asko dugu oraindik ikasteko. Agian dena dakigula uste dugulako, ez dugu horrelakorik antolatzen. Udaberriaren bila uzten zaituztet.



KALEBERRI

ANA URDANGARIN

Martxoaren 8a

Egun bakar bat izaten al da ba, zer edo zer ospatzeko eguna? Noiztik markaturiko ohitura dugu hori? Zer dela eta aukeratu zen martxoaren 8a eta ez beste egun bat?

Egutegiak gorritz azaltzea aspaldidanik ezaguna dugu gure artean, politikoen erabakien arabekoak izaten dira gainera, urteko hainbat egun jakinak izendatzea.

Egun batean ospatzean oinarritu gara hainbat eta hainbat errebindikazio. Ez da gutxi, baina nahikoa ere ez. Egunero izan beharko genuke dena delakoaren kontzientzia. Egunero dagoelako zerbait ospatzekorik. Kasu honetan, Emakumeen Eguna ari naitaizue. Askok baitago ospatzeko, baina asko aurrera jarraitzeko!!!

1910etik ospatzen den egun honetan, nazioartean emakumeen eskubideen aldarrikapena egiten da. Martxoaren 8an ospatzen da. 1908an New York-eko lantegi batean 146 emakume langile hil zirenez egun hori aukeratzeko hautatu zen.

Usurbilen ere egun honekin bat egiteko ekitaldia antolatu da. Martxoaren 6an Artzabalen ospatuko den bertso afarira joateko gonbitea egin nahi dizuet, giro ederra izaten baita bertan. Egunero dugulako zer ospaturik, ondo bizi!!!



ATXEGALDE

MARIA JESUS URBIETA

Neguaren bihotzean

Gure aurrekoek esaten zuten bezala, neguko bihotzean gaude sartuta, eguraldiak gorabehera handiak ditu, eta hor gabilta kezkatuta itsasoari begira. Oso haserretuta dabilela dirudi, eta gure gainera datorkigu. Kalte handiak egin ditu kostalde guztian, jendea larri ikusi dugu. Gure auzoa aparte gelditzen denez, arnasa hartu behar oraingo. Baina badugu irribarretsu egoteko arrazoirik ere. San Valentín eguna izan berria dugu, urtero bezala. Elkarri keinu bat pozik egiteko aukera, detaile edo opari baten bidez. Bazkari edo afari gozo baten aurrean, ondo pasatzeko modua. Inauteriak ere badatozkigu eta dagoeneko prestatzen hasiak dira jantziak eta dantzak. Ondo gozatzeko asmoarekin beraz, animatu batez ere gazteak.

Amaitzeko, gure auzotar bi zoriendu nahi ditut bereziki, hilabete honetan lehenengo aldiz amatxo izan berri baitira; Ainara Bordagarai, ongi etorria Paul! Eta Jaione Leibar, ongi etorria Iker! Zorionak haurron aita-amei!

Erdi Arora itzuliko gara, martxoaren 1ean

Mendeetan atzera egingo dugu aste-bete barru Usurbilen ospatuko dugun Inauteri Festan. Eguerditik kalera irteteko gonbita luzatzen dizuegu. Erraldioen kalejira eta dultzaineroekin abiatuko baita udaletxetik, aurtengo mo-zorro festa. Burrunbazale txarangak hartuko du lekukoa arratsaldean Gaztetxean. Handik Kaxkora jaitsi eta Tipi-Tapa egitasmoan parte hartzen duten zazpi tabernetan egingo ditu geldialdiak; hau da, Txapeldun, Artzabal, Xarma, Bordatxo, Txirristra, Aitzaga eta Txiribogan. Aurten, tabernariak ere mozorrotzekoak baitira, eta tabernak Erdi Aroz jantziko dituzte.

Eguerdiko kalejirak ere gel-toki hauetatik barrena osatuko du ibilbidea. Eguerditik gauera kale giroan murgiltzeko aukera ederra beraz. Eta afaltzeko, dakizenez, Usurbilgo Gaztetxean bapo jateko gonbidapena egina dago. Burrunbazale txarangakoek bertan amaituko dute afalurreko kalejira. Denok afaritarra gero, Alkartasuna Kooperatibaren egoitza ohira. Menua, goxo askoa; paella, solomoa eta postrea. Gogoan izan, otordurako txartelak aurrez erosi behar direla, otsailaren 26a baino lehen. 13 eurotan salgai dituzue NOAUA!ko egoitzan, Txiribogan eta Irratin. Afaritarra mozorrotuta joatea ezinbestekoa izango da.

EKIMEN UGARI DATOZEN EGUNETAN

Zaku eta kukurutxo koloret-suekin HH-koak, LH-koak itsasoari loturiko jantziekin, eta DBH-koak komikiko pertsonaiez mozorrotuko dira, otsailaren 28an. Ohi bezala, Udarregi Ikastolako ikasleek emango baitiote ongi etorria Usurbilgo inauteriei. Kalejiran lehenbizi, eta Kiroldegiko ikus-



Tabernariak ere mozorrotu egingo dira Inauterietan. Eta Erdi Aroz apainduko dute taberna Txapeldun, Artzabal, Xarma, Bordatxo, Txirristra, Aitzaga eta Txiribogan.

MARTXOAK 1 LARUNBATA

“Gogoan izan Inauteri Jaian egingo den otordurako txartelak aurrez erosi behar direla, otsailaren 26a baino lehen. 13 eurotan salgai dituzue NOAUA!ko egoitzan, Txiribogan eta Irratin”

kizunarekin borobilduko dute festa. Zubietan, txarangaz mozorrotzekoak dira Eskola Txikian. Eta Aginagakoan ere, kamiseta koloretsu eta musika instrumentuekin, kalejiran irtengo dira arratsalde partean. Martxoaren 1ean, Gaztelekuoek ere jaialdia antolatu dute euren egoitzan; karaoke baten inguruan.

Ekimen dezente datozen eta joka ditugu inauterietarako. Girotzen hasteko, Zumarteko ikasleen kontzertua, datorren asteartean:

OTSAILAK 25 ASTEARTEA

18:30 Zumarteren kontzertua Sutegin:

Kantu-Kantari Taldearen eta Zumarte Abesbatzaren inauterietako kontzertua Sutegin.

OTSAILAK 28 OSTIRALA

UDARREGI IKASTOLA:

Haur Eskolan:

Mozorrotuta dantza egingo dute gelan eta 2 urtekoak Eguneko Zentrora bisitan joango dira.

10:00 Lehen Hezkuntza:

Ikasleen desfilea.

11:15 HH, LH eta DBHko ikasleen emanaldia:

Oiardo Kiroldegian.

Aginagako Eskola Txikia:

14:30-16:00 Kalejira, txarangaz mozorrotuta. Ondoren, txokolatada.

Zubietako Eskola Txikia:

Txarangaz mozorrotuko dira.

MARTXOAK 1 LARUNBATA

12:00 Erraldoi txiki eta handien kalejira, dultzaineroek lagunduta.

16:30 Karaoke Festa Gaztelekuan (Mozorrotuta etorri!!!).

18:00 Burrunbazale txarangarekin, kalejira Usurbilgo Gaztetxetik abiatuta.

21:30 Afaria Usurbilgo Gaztetxean. Ezinbestekoa mozorrotuta agertzea. Txartelak salgai 13 eurotan, NOAUA!n, Txiribogan eta Irratin, otsailaren 26ra arte.

Inauteri giroko kontzertua Sutegin

Datorren asteartean, otsailak 25, Zumarteko Kantu-Kantari Taldeak eta Zumarte Abesbatzak kontzertua eskainiko dute Sutegin, 18:30ean. “Inauteri giroaren inguruan, denak zaudete gonbidatuta”.

Zilarrezko domina Andoaingo Piano Jaialdian

Asteburuan Piano Jaialdia ospatu zen Andoainen. Zumarteko bi ikasle aritu ziren: Nahia Franco Hernani eta Pello Ibarгойen Alvarez bikotea, eta zilarrezko dominarekin etxeratu ziren. “Lan gogorra egin zuten baina oso gustora geratu ziren lortutako sariarekin”, hala adierazi digute Zumarte Musika Eskolako kideek.



Pello Ibarгойen Alvarez eta Nahia Franco Hernani, pozarren.

Asier Iturralde, Ihesi aplikazio

Laster prest izango duen hondakinen gaineko bilketan oinarrituriko jolas berri bat diseinatzen dabil une honetan, baina aurrez sortua duen beste lan bategatik elkarrizketatu dugu Asier Iturralde herritarra. Euskal Herrian Ihesi, mugikorretarako turismo aplikazio berriaren egilea baita bera. Iazko maiatzean aurkeztu zuten, Euskaldunen IX. Bilkuran eta eguberri atarian, Gipuzkoako 2013ko aplikazio onenen artean saritu zuen Foru Aldundiak. Beraz badakizue. Negu parte honetan, gertura eskapatatxoren bat egin nahi baduzue, Iametzako lan taldeak Argiarentzat egin duen Ihesi aplikazioa ezin lagungarriagoa suertatuko zaizue.

Gertuan, nora joan edota zer bisita dezakezuen gomendatzen baitu. Euskal Herrian, euskaraz eta euskal herritarrei zuzendurikoa baita, zazpi lurraldeetako barne turismoa sustatzera datorren mugikorretarako bitarteko interaktiboa. Android eta iPhone/ipadetan instalatzeko aukera dago software libreko aplikazio hau.

Aurrez martxan zegoen "Ihesi.com" web orria osatzera dator aplikazioa?

Asier Iturralde: 2012ko abenduan hasi ginen proiektua lantzen. Web orrialdea oso ondo zegoen, oso proiektu polita zen jendeak elkarri gomendioak egitea. Mugikorretarako oso egokia zela ikusten genuen, gomendioak egiteko bat-batekotasuna eskainiko zuen eta. Orain mugikorra denek dutenez, ihesi.com web orriko edukia mugikorretara egokitzea zen asmoa. Mugikorrek eskaintzen dituzten abantailletara; argazkiak atera daitezke, geolokalizazioa du. Non zauden, zure posizioaren arabera, zuek gertuen



Asier Iturralde, Ihesi aplikazioarengatik jasotako saria eskuartean duela.

ASIER ITURRALDE

"ihesi.com web orriko edukia mugikorretara egokitzea zen asmoa, mugikorrek eskaintzen dituzten abantailletara"

dauden gomendioak agertzen dizkizu. Usurbilen bazaude adibidez, hemendik gertuen dauden gomendioak agertzen dira.

Web orriko edukietatik mugikorrean daudenetara, alderik bada?

Desberdintasun nagusia, informazioa erakusteko modua da. Web gunean udalerrien arabera antolatuta daude. Herrialde bat hautatuta herrien zerrenda agertzen da eta herri bat aukeratuta herri horretako gomendioak. Mugikorrean aplikazioa piztean, saiatzen da non zauden jakiten, geolokalizazioaren bidez. Jarraian, gertuen dauden gomendioak agertzen dira, distantziaren edo jendeak emandako botoen arabera sailkatuta. Erabiltzaileek positiboki edo negati-

boki bozka dezakete, gomendioa gustatu zaien edo ez. Eta horren arabera ikusi liteke, inguruko 40 kilometrotan zein diren bozka gehien dituzten gomendioak, edo jendeak ondoen baloraturikoak.

Turismoari loturiko aplikazio bati buruz ari gara. Euskal Herria osoa hartzen du?

Nik dakidala Euskal Herria osoa bere baitan hartzen duen lehena da. Aurrenekoa edo bakarra. Eta euskaraz.

Usurbili buruz adibidez, zer aurkitu genezake aplikazio berri honetan?

Ohiko turismo gidetan agertzen ez diren edukiak agertzen dira hemen, denetarik; parrandako lekuak, jatetxe eta ostatuak, bisitatzeko lekuak... Google maps-en laguntzaz momentuan non zauden agertzen da eta non dagoen joan nahi duzun lekua. Eta hara joateko oinez, autoz, edo garraio publikoan, nola iritsi. Usurbilgo gomendioen artean, Oria ibaia ageri da adibidez. Norbaitek egindako gomendioa da.

"Gauzak ondo antolatu behar dira"

Erabiltzaileak osatzen joan daitezke, aplikazioak eskaintzen duen informazioa. Nola ordea?

Modu bat, gomendio berriak egitea litzateke. Aplikazioan bertan proposamenak egiteko atala dago. Horretarako, erabiltzaile moduan erregistratu beharra dago. Aukeratu, lurraldea, herria, kategoria, izena. Deskribapen labur bat sartu, gomendioa argumentatu, web gune bat baldin badu helbidea erantsi. Kamerarekin ateratako edo galeriako argazkia gehitzeko aukera ematen du. Google maps-en laguntzaz nola iritsi adierazi daiteke. Eta hori guztia gero, web gunean eta mugikorreko aplikazioan aterako da.

Halako aplikazio bat sortzea, lan konplexua da?

Badu lana. Lehenbizi zer nahi duzun pentsatu behar da. Zer helburu, edo zer lortu nahi duzun aplikazio horrekin. Gero mugikorreko pantailan zer eta nola erakutsi, leku nahiko justua dago eta. Orduan gauzak ondo antolatu behar dira. Eta azkenik, egoiki programatu, gauzek funtziona dezaten, errorerik ez emateko.

sarituaren egilea

Erabiltzaile aldetik jakin ahal duzue, zer harrera izan duen?

Asier Iturralde: Erabiltzaileak aplikazioa baloratu dezake, izar kopuruaren arabera bozka dezake. Androideko play store-an, balorazioak oraingoz positiboak dira.

Lan talde bat egon da honen atzean?

Lander Arbelaitz kazetaria, berak ideiak, edukiak proposatzen zituen eta ni programatzen hasi nintzen. Astero bile-rak egiten genituen, erakusten nion zer nuen eginda. Astero joaten ginen fintzen edo hobetzen. Lan taldeko jendeak ere lagundu gaitu.

Saria eskutan pozik ezta?

Hasieran sinistu ezinik, oso gustura. Gauzak egiten segitzeko beste ilusio bat ematen du.



2013ko aplikazio onenen artean saritu du Gipuzkoako Foru Aldundiak.

2013an lehen aldiz antolatzen zuen sariketa Foru Aldundiak. Bizpahiru kategoriatako sariak banatu dituzte, profesional eta amaiteurrentzat. Aldundiko egoitzan izan zen sariketa. Bakoitzak gure proiektua defen-

datu behar genuen bizpahiru minutuz. Aplikazioa aurkeztu behar genuen, eta gero epaimahaikoen galderak erantzun. Aurkeztu ziren beste aplikazioak ere oso maila onekoak iruditu zitzaizkidan.

Beste aplikazio batengan pentsatzeko bidea eman diezue?

Saritik jasotako dirua, beste aplikazio bat garatzeko izango da. Aurtengo sariketara aurkeztu beharko dugu. Halere oraindik ez dugu erabaki, nolako aplikazioa garatuko dugun.

Egun, hondakinak sailkatzen ikasteko joko bat egiten nabil. Hondakinak erortzen joaten dira, eta hondakinok sailkatzen joan behar zara. Oraindik bukatzeke dugu.

Zer irteera eman nahi diezue aplikazio horri?

Webgune bat izango du antzeko informazioarekin, nola birziklatu, zalantzak argitzeko. Gure enpresan arlo garrantzitsua da hiri hondakinaren tratamendua eta sailkapena.

OTSAILAK 23, IGANDEA

HERRIKO ONDAREA EZAGUTZEKO IBILALDIA

HERRIA BESTE BEGIRADA BATEZ EZAGUTZEKO AUKERA, DITUGUN TXOKOAK BALOREAN JARRI ETA HERRI ONDAREAZ APUR BAT GEHIAGO JAKITEKO AUKERA EDERRA IZANGO DA.

Non: goizeko 9:15ean udal ondoko autobus geltokian autobusez Aginagara joateko.
Biltzeko hitzordua Sariakolan 9:30tan.
Ibilbidea: Sariakolan hasi eta Aginagan amaitu.
Noiz: Goizean zehar (9:30 - 13:00).
Irekia guztiontzat
Oharra: ibilbide amaieran, itzulera autobusez, oinez edo autoz egin ahal izango da.







Lehia eta festa, Oriako XX. Jaitsieran

Oriaren Jaitsiera festa giroan ospatu zen. Gero eta arraunlari eta ontzi gehiago etortzen dira Oriako errikoan lehiatzera. Bandera bat dago jokoan ordea, eta aurten Oriko nagusitu da.

Etxeko lasterketa etxeko ontziak irabazi zuen, 6.000 metroko ibilbidea 19 minutu eta 30 segundotan burutu eta gero. Oriotarrek 6 segundoko abantaila lortu zuten Hondarribiaren erriko.

Irabazleen artean zen Iñaki Errasti arraunlari aginagarria. Zazpi urtez Kaikun egon ondoren, Oriara itzuli da berriz ere. Denboraldia hasi baino ez da egin eta dagoeneko bigarren garaipena erdietsi dute oriotarrek. Hondarribiko Jaitsieran lortu zuten lehena.



Iñaki Errasti besoa luzaturik, Oriako Bandera eusten. Zazpi urtez Kaikun egon ondoren, Oriara itzuli da aginagarria.

Trainerua-Gizonezkoak:

Orio A, 19:30:11. Marka berria.

Trainerua-Emakumezkoak:

Hibaika, 14:30:66. Marka berria.

Llaüt Mediterranea:

CN Badalona, 20:14:30.

Llagut Català:

Capgrossos-Mataró, 21:47:13.

Trainerua-Beteranoak:

ZIERBENA, 14:48:37.

Trainerua-Jubenilak:

PORTUGALETE, 14:33:63.



Kalitate turistikoarekin konprometituak

Jatetxeak, sagardotegiak, pintxo-tabernak, hotelak, pentsioak, nekazalturismoak, landa etxeak, museo eta interpretazio zentroak... Guztira 28. Donostialdeko 28 establezimenduk Kalitate Turistikoarekiko Konpromisoaren bereizgarria lortu dute. Bereizgarria bera, agiri moduan jaso zuten astelehenean, Urnietako Oianume jatetxean ospatu den ekitaldian; besteak beste, Usurbilgo Saizar Sagardotegiak, Zubitako Barazar Landetxeak, Aginaga Sagardotegiak eta Aginaga Hotelak. Baita, ekitaldia ospatzeko hautatu den kokaguneak ere; Oianume Jatetxeak



Saizar sagardotegia, Barazar landetxea, Aginaga sagardotegia eta Aginaga hotela diploma banarekin saritu dituzte.

eta bertako ostatuak.

SICTED izeneko programan parte hartzen ari dira establezi-

mentu guztiok. Egitasmo honen bidez, turismoaren alorrean lan egiten duten gune

hauetako kudeaketa eta bezeroei eskaintako zerbitzua hobetu eta profesionalizazioa sustatu nahi da. Norabide horretan lau urteko lanketa burutzen dute. Formazioa jasotzen dute, gune bakoitzera bisitak egiten dira kalitatea hobetzeko arauen ezarpenaren inguruko jarraipena egiteko, eta amaieran, konpromisoen betetzea ziurtatuko duen ebaluaketa bat egiten da.

Diploma bana jaso dute

Prozesu honetan murgildu eta euren zerbitzua hobetzeko apustua egin dutenek diploma bana jaso dute.

Kirolariak ere, erabakitze eskubidearen alde



Aurreko ostiralean, kirol ekitaldi ugari egin ziren frontoian. Atxikimendua ere agertu zioten Gure Esku Dago ekimenari.

Gure Esku Dago Usurbilek antolatuta, ekainaren 8an Durango Iruñearekin lotuko duen giza-katea girotzeko kirol ekimenak antolatu zituzten frontoian, joan den otsailaren 14an. Parte hartzaileak, herriko kirol taldeetan dabilzan lagunak izan zi-

ren. Haietako batzuk, ondoko argazkian dituzue, erabakitze eskubidearen aldeko giza-kateari atxikimendua adierazten. Kirol ekimenok burutzen ari ziren bitartean, izen emateko mahaia jarri zuten Sutegi atarian, Gure Esku Dago Usurbil

bilgunekoek. Lehengo igandean, baita Mikel Laboa plazan ere. Pixkanaka jendea izena ematen ari da. Ekainaren 8ko giza-katearekin bat egin duten herritarren zerrenda, Sutegiko erakusketa aretoan dago ikusgai.

Sexu genero sistemari buruzko mahai ingurua

Ostiral honetan, otsailak 21, gaueko 22:00etatik aurrera Usurbilgo Gaztetxean. Kattalin Miner arituko da hizlari lanetan, Ernai Usurbilek eta Usurbilgo Gazte Asanbladak antolaturiko ekitaldian.

"Sexu genero sistema irauliz" izenburuko hitzaldian, "gauregun botere kapitalista heteropatriarkarrak indarrez mantentzen duen sexu genero sistema aztertu eta berau iraultzeko ildoan inguruan hausnartuko dugu. Beraz, gazte, emakume, langile... animatu betaurrereko moreak janztera!"

Bestalde, martxoaren 8ko Emakume Langileen Egunaren harira, Usurbilgo Gazte Asanblada eta Ernai Usurbil zenbait ekimen prestatzen hasi dira.

TXAPELDUN
TABERNA
razioak
ogitartekoak
plater konbinatuak...
Muna lurra 2, 943 11 82 53

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

ETXETRESNEN
KONPONKETA
MARKA GUZTIAK, PREZIO ONEAN
645417665
(XABIER)
Usurbil

Okindegia-Gozetegia
LABE-GOXO

Datorren urtean ere, errepikatzeko modukoa

Hala adierazi diote NOAUAri, otsailaren 8-9ko asteburuan Altitoy mendi eskiko proban parte hartzea joan zen herritar taldeak. Ondoko argazki eta kronika bidali digute, Jon Rekondok, Iñaki Rekondok, Andoni Udabek, Imanol Zarautzek, Egoitz Manterolak (Orio), Patxi Pagolak, Harkaitz Iparragirrek eta Mikel Legarretak (Urnieta):

"Iragan asteburuan Luz St. Sauveur eta Bareges inguruetan egin da Altitoy mendi eskiko proba. Larunbatean SuperBaregeseko parkingnetik atera eta A ibilbidekoek 2150 metro-tako desnibel positiboa zeukan ibilbideari aurre egin behar izan zioten, aldiz, B ibilbidekoek 1350 metro-tako desnibel positiboa egin zuten. Hasiera batean eguraldi txarra eta haizea zegoen iragarrita baina nahikoa ondo portatu zen. Haizearengandik babes-tutako lekuetatik egin zuten ibilbidea eta nahiz eta ibilbide oso teknikoa ez izan egun polita atera zen.

Igandean berriz eguraldi hobea zegoen iragarrita eta halaxe izan zen. Hau baliatuz, Luz Ardiden eta Bedereko inguruetan ibilbide gogorra goa ezarri zuten. A ibilbidekoek 2450 metro-tako desnibel positiboa eta B ibilbidekoek 1450 metro-tako desnibel egin behar izan zuten. Aurreko eguneko joera berdintsuari jarraituz eski pistetatik abiatuz lepo zein baso tartean eskiatu eta fokeatu behar izan zuten.

Hasiera batean Pic du Midi Bigorrera igotzeko asmoa zuten baina haizea eta elurraren baldintzak ez zirenez egokienak ibilbidea aldatu egin zuten. Parte hartu zuten usurbildar



Argazkian usurbildarrak, eta eurekin partehartu zuten lagunak.

ALTILOY

"Hasiera batean eguraldi txarra eta haizea zegoen iragarrita baina nahikoa ondo portatu zen"

guztiek bukatu zituzten bi eguneko ibilbideak eta gustura geratu ziren egindako denborekin.

Minutuko isilunea

Larunbateko ibilbidearen hasieran minutu bateko isilunea egin zuten eta igandean berriz omenaldi beroa jaso zuten Andoni Areizagak, urrian auto istripuz hil zen Andoni Areizagak.

Antolatzaileek iragarri dutenez gustura daude egindako lanarekin eta datorren urtean ere bertan izango direla iragarri dute ibilbide berri, tekniko eta interesgarriak proposatuz.

Altitoyek daukan dohaletako bat inprobisazioari aurre egiteko daukan gaitasuna da. Antolatzaile eta laguntzaileek (350 pertsona) ahalmen handia daukate bi egunetako ibilbideak

osatzeko mendiaren eta eguraldiaren baldintzek okerrera egiten badute, jakinik 500 partehartzaile egongo direla mendian proba egiten eta edozein gauzaren gainetik beraien segurtasuna da lehentasuna.

Eskerrak antolatzaile eta laguntzaileei egindako lanagatik. Datorren urtean ikusiko gara".

Pilota Aginagan

Otsailak 21 ostirala, 19:00h
GIPUZKOAKO TXAPELKETA:

Infantilak 2. maila:

USURBIL-ALLERRU

(Jon Zumeta-Aimar Iruretagoiena)

UDABERRI TXAPELKETA:

Nagusiak 1. maila:

USURBIL-IPARRALDE 2

(Ander Kina-Asier Katalina)

Paleta goma nagusiak 1 maila:

USURBIL 1-LOIOLATARRA

(Imanol Esnaola-Jon Olaizola)

Errekor berri bat ezarri du Itoitz Rodriguez atletak

Itoitz Rodriguez Errondosoro atletak marka bikainak lortu ditu azken egunotan, indoor denboraldiko proba ezberdinetan. Otsailaren 8an Gipuzkoako Txapelketa absolutua jokatu zen Anoetako Belodromoan eta Itoitzek 400 metro libreetan hartu zuen parte. Jubenil mailakoa izanik, urrezko domina irabazi zuen eta horrez gain, jubenil eta junior (urte bete zaharagoak) mailetako errekorra gainditu zuen. 49'12ko marka bikaina egin zuen distantzia horretan Itoitzek.

Euskadiko absolutuan, bigarren

Bestalde, Euskadiko Indoor Txapelketa absolutua jokatu zen igandean Belodromoan, eta Itoitzek 200 metro libreetan hartu zuen parte. Sekulako final ederra eskaini zuten korrikalariak. Bigarren izan zen Itoitz, 22 segundo eta 33 ehuneneko denborekin. Irabazlea Atletico San Sebastian taldeko Alvaro Lopez izan zen.



Jubenil eta junior mailetako marka ezarri du 400 metrotan.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.com

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. © 943 362 725

Errazkin S.L.
igeltseritza orokorra

943 24 01 76 eta
649 435 470

errazkinsl@euskalnet.net

Oztaran auzoa 33, URNIETA

Garaipenez blai, Usurbilgo judo taldea



Azken asteotan, emaitza ederrak erdietsi ditu Judo Taldeak.

Ohi bezala, garaipen kopurua zenba ezina da Usurbil Judo Klubean. Jarraian datoz, azken asteotan jokatu dituzten txapelketen emaitzak:

-44 kg Sarai eta Maddi.
-48 kg Mafer
-52 kg Naroa
+63 kg Lorea eta Paula

Otsailak 8: Gipuzkoako Kadeteen Txapelketa, Hernani:

-48 kg Paula Vicente (1. postua)
-48 kg Alba Vicente (2. postua)
-48 kg Julia Arrillaga (3. postua)
-48 kg Ainhoa Gonzalez (3. postua)
-52 kg Itsasne Arruabarrena (1. postua)
-50 kg Unai Gonzalez
-50 kg Julen Alzas (3. postua)
-60 kg Jon Rubio (2. postua)
-60 kg Manex Aburuza
-73 kg Josu Ruiz (3. postua)
-81 kg Mikel Formoso (3. postua)
-90 kg Mikel Sanz (1. postua)
+90 kg Joxe Arruebarrena (2. postua)

Otsailak 7: Espainiako Junior Kopa, Oviedo:

-57 kg Nahikari Borda: zazpigarren postua.
-73 kg Xabier Cazorla: finalerako sailkatua.

Otsailak 2: Infantilak, Gipuzkoako taldekako Txapelketa, Pasai Donibane: Usurbil garaile

Otsailak 2: Gipuzkoako Junior Txapelketa, Pasai Donibane:

-48 kg Paula Vicente (urrea)
-52 kg Itsasne Arruabarrena (urrea)
-57 kg Naroa Sanchez (zilarra)
-63 kg Nahikari Borda (brontzea)
-60 kg Jon Rubio
-66 kg Nestor Laca
-73 kg Xabier Cazorla (urrea)
-81 kg Pello Ruiz
-90 kg Mikel Sanz (zilarra)
+90 kg Joxe Arruebarrena (urrea)

Otsailak 1: Emakumeen Liga Nazionala, Villaviciosa de Odon:

Sotillo 3-1 Usurbil
Usurbil 5-0 Alicante
Usurbil 3-2 Juan de la Cierva (Madril)
Usurbil 3-1 Budokan (Madril)

Klubari buruzko informazioa:

<http://www.jcusurbil.com/>

Mafer Carazas, bigarren Capbretongo judo txapelketan

Nazioarteko judo txapelketa ospatu zen bertan, joan den igandean. Usurbil Judo Klube-ko Mafer Carazas kideak bigarren postuan amaitu zuen, infantilen bigarren urtekoen artean, 49 kiloz azpiko mailan. Berak bidalitako argazkian ageri da podiumean.



Irudian, ezkerrekoa da Mafer Carazas gaztea.

Futbola Haranen

Otsailak 22, larunbata

9:30 Alebin neskek: Udarregi 6B-Urnieta 6A
9:30 Alebin neskek: Udarregi 5B-Urumea
11:00 Infantilak: Usurbil FT-Tolosa CF
15:30 Regionalak: Usurbil FT-Munibe KT
17:30 Kadeteak: Usurbil FT-Kostkas KE

Eskubaloia Oiardon

Otsailak 22, larunbata

11:00 Alebin mutilak: Langile A-Udarregi 5A
11:00 Alebin mutilak: Udarregi 6A-Udarregi 6B
12:00 Infantil mutilak:
Udarregi A Usurbil-Bidasoa Irun
13:00 Infantil neskek:
Udarregi C Usurbil-Aiala B Zarautz
16:45 Jubenil neskek: Usurbil K.E.-Urdaibai
18:30 Senior mutilak, 2. nazionala:
Ucin Aluminio Usurbil-Corazonistas

Otsailak 23, igandea

10:00 Senior neskek:
Usurbil K.E.-aurkaria zehazteke
11:30 Jubenil mutilak:
Usurbil K.E.-Bidasoa Irun

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE NAQUISIA 10- etzekoaldea
943 372 795

ARRANDEGIA PELLO
PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
eraikuntza@euskaintzi.net
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

ETXEBIZITZA**Salgai**

Pisu bat alokatu edo salgai Munalurran. 3 logela, sukalde-egongela, komuna, 2 terraza. 637 309 209.

Sanesteban kalean pisua salgai. 3 logela, sukalde-egongela, komuna, eta balkoia. Dena berritua. Tel. 699 680 265. 135.000€.

Pisua salgai Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Iñaki (665736896)

Pisu bat salgai Munalurran. 3 logela, 65 metro, berritzeko. Fatxada eta portala berritu berriak. 138.000 €. 617 972 350.

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Etxe bizitza salgai Kalezarren, 120 metro koadro. 16 m terraza, 80 m jardina eta garaje itxia 2 plaza-koak. 676 453 176.

Roller etxeko modulo bat salgai Errioxako Fuenmayor herriko kanpian. Informazio gehiagorako: 615 760 461.

Pisua salgai Munalurran, guztiz berritua, 1. pisua igogailu gabe, +60metroko trasteroaren pisu azpian. 2 gela, aire egokitua, kalfakzioa, parket... ikusgarria. 200.000 euro. 636393237.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukalde egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbar handia. Lehen 240.000 euro, orain 190.000 eurotan. 662 056 899.

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezeta-tan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpo-

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goialdean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

aldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur saillean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbarekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, berritua, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

Alokairuan

Sanesteban kalean pisua alokairuan. 3 logela, sukalde-egongela eta balkoia. Prezioa: 500 euro. Tel. 652 741 833.

Santuenean, diseinu polita eta berritua. 600€. 2 hilabeteko fiantza. txangu68@hotmail.com

Lasarten, Zumaburu auzoan, lokal bat alokatzen da. 150€ hilabetean. Erreforma txiki bat behar du. Tel. 687 348 223.

Pisu bat alokatzen da Santuenean. 2 logela, egongela, sukalde eta trastelekuarekin. 550€ negoziagarriak. Tel. 637 962 568.

"Logela bata lokagai. 250 euro + gastuak. Kale Nagusian. 606 642 161

Pisua alokairuan Santuenean. Berri-

tua, 2 logela. Urtariletik aurrera. Fidantza gehi 2 hilabete aurreratuak. 630€

Usurbilgo pisu batean, logela bat libre konpartitzeko. 290€ hilabetero, Wifi, ura, elektrizitatea eta gas-tu guztiak sartuta. Giro ona, pisu dotorea eta handia. 657 700 408.

Atxegalden pisu bat. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, terraza eta igogailua. 637 309 209.

Gela bat alokatzen da Usurbilen. Pisua egokia eta gela handia. Tel. 691 898 800.

Etxe bat Txokoalden. 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta terraza handi bat. 688 863 366

3 gelako etxea alokagai erdialdean 700€ gehi gastuak. Gelaka ere alokatuko genuke. 630713583

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

MOTORRA**salmenta,****garajeak**

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro karratu-koak. Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

Garaje (marra) bat alokatzen da Kale Nagusian 60€ hilabetero. 657 700 408.

Garaje itxia alokatzen da Txaramunto auzoan. 15 metro karratukoak. Tel. 667 71 50 75

SsangYong autoa salgai, Mercedes motorduna. Egoera onean. 1.500 euro. Joxe Mari 943361512

Garaje itxia salgai. 20 m karratukoak. Kale nagusia, 26. Usurbil 23.000 euro. 674 343 184

Opel Zafira salgai, 1.781 cv. 2010eko urrikoa. 25.000 km. Oso egoera

onean. 652759267

Kale nagusian garaje itxi bat alokatzen da: ate automatikoa eta kotxea eta motoa sartzeko modukoak 667984083

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka... Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen, garbiketaren eta ostalaritzan) 698 322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo garbiketa industrialean. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketa lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularrek emateko prest: LHn ingelesa, frantsesa, euskara, gaztelera eta ingurumena. DBH eta Batxilergoan ingelesa, frantsesa, euskara, gaztelera eta filosofia arloak, baita ingelesez ematen diren gaiak ere. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile titulua erekin. 619511789 / 943 760418.

Erizain laguntzaile bat. Sukalde eta masajeko titulazioarekin. Pertsona helduak, gaixoak edo umeak zaintzeko. Esperientzia frogagarriekin. 943 36 50 79.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketaren edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

Neska arduratsuak lana bilatzen du interna moduan eta etxeko garbiketarako egiteko. 631 122 350.

Etxeak margotu eta dekoratzen ditut. Paisaiak, aurpegiak... agertzen diren koadroak egiten ditut.

Altzariak konpondu. 634 181 059.

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 608 34 04 84

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 696 83 55 69

Usurbilgo neska euskaldun bat eskaintzen da arropak konpontzeko eta goizez etxeak garbitzeko. 696 601 795

Usurbilgo neska euskalduna, tituluduna eta esperientziaduna, hurrei ingeleseko klase partikularrek eman edo etxerako-lanetan laguntzeko prest. 670461180. E-maila: oli_ireth@hotmail.com

Klase partikularrek ematen ditut, LH-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatzeaz eta lan honetan esperientziaduna. (618598071 Izaro)

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzaile moduan lan egingo nuke. Tel. 690 079 418.

Klase partikularrek ematen ditut edozein irakasgaietan. Esperientziaduna. Ordu-tegi eta prezioak adosteko erabateko malgutasuna. 634417969 (Amaia)

Udan edo ikasturtean zehar umeak zainduko nituzke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gainxo dauden pertsonen erizain zainketak emateko prest nengoke. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrek zaindu zein klase partikularrek emateko prest nago. Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrek zaintzeko prest nago udan zehar goizez zein arratsalde zehar. Irakaskuntza gradua bukatzeaz eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).

Klase partikularrek ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakaskuntza gradua eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrek zainduko nituzke goizez zein arratsalde zehar. Irakaskuntzan diplomatu. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko

**Zorionak Nahia!!**

Otsailaren 19an 7 urte bete dituzu. Muxu handi bat eta ondo pasa. Zuhaitz eta etxeko guztien partez.

**Zorionak Onintza!**

Otsailaren 21ean, 12 urte beteko dituzu. Zorionak Eneko, aita eta amaren partez. Muxu bat.

Ohar, zorion-agur... berri emateko azken eguna: asteartea, eguerdiko 11:00etan erredakzioa@noaua.com

pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketari. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketari eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein orduetan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsua eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria presatatu... Garbiketari lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrik ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingenierritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua ditut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urtetako umeei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrik emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Neska gazte esperientziaduna, heziketa premia bereziak dituzten ikasleei klase partikularrik emateko prest. 688 661 997 (Garbiñe).

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrik emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskalduna, haurrak zaindu edota klase partikularrik emateko LH-n DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzetan laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo internan moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. Telefono zenbakia: 609 632 030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbi-

keta lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonetako bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da egunez, adineko pertsonak umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, ostalaritzarako eta garbiketaregiteko. 673 445 903

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Lan eskaintzak

Emakume autonomo bat behar da Usurbilgo elkarte bat garbitzeko. 943 36 27 24 (Hitzorduak astelehenera 18:00-20:00)

Emakume euskaldun eta espe-

rientziaduna behar da Astigarragan, 6 hilabeteko haur txiki bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Goizez, astelehenera ostiralera. 635742503

BESTELAKOAK

Iphone 5 telefono mugikorra galdunuen Eguberrietan. Topatu baduzu, deitu 943 36 11 15 telefonora.

Mahaspildegiekin artean bazkide plaza bat salgai. Interesa baduzu deitu: 637 413 691 Juanjo

Valentziako mandarina ekologikoak salgai. 1€ kilo. Bitartekaririk gabe. Tel. 637 929 093.

Katu beltza eta txuria galdu da herrian, "Txalaka" frutadenda inguruan. Pottolo xamarra dago. Norbaitek aurkitu badu, deitu: 605 752 667. Saria emango da.

Baseri edo borda bat nahi genuke alokatu edo alokairuaren bidez. Oiloak, pottokak eta baratza ditugu, beraz hektarea bat gutxienez behar dugu. Miren: 656742048; Alaitz: 658724075

Hemengo, Kiwiak eta babarrunak salgai. Tel. 943 364 937.

Baseri bat eskaintzen da konpondu eta negozio bat jartzeko Lasarte inguruan. Tel. 626 728 463.

Josteko bi makina salgai. 943363201.

Indukziozko suak salgai. Bi urte ditut eta baldintza onetan dago. 943 361 109.

Zubietan 10.000 m. baino gehiagoko lursail bat alokatuko nuke. 635729637

Izotzetan ibiltzeko patinak salgai. 35 - 38 talla, merkeak. 649 482 775.

Ohe altu bat salgai. Mutilena eta koloretua. Tel. 649 482 775.

Aurtengo eta hemengo babarrunak salgai, artoarekin batera egingo da. 637974994

Telebista salgai, Sony, Egoera onean, 80 euro. 653 014518

Erosi gasolina sorgailu elektrikoak, berria erabili gabe, 80 euro. 689880561

Hemengo intxaurra erosiko nuke, deitu 634 409 888

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713204 edo djlarra@usurbil.com

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebista, patinetek, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenera ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Abere-Landare Babeslea	943 376 650
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Taxia (Angel)	607 928 770
Udaltaingoa	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Eusko Tren	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	LurraldeBus	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Anbulategia	943 362 013
Bake Epaitesia	943 372 336	Oa botika	943 376 076
Udarregi Ikastola	943 361 216	Iturralde botika	943 363 395
Haur Eskola	943 374 061	DYA	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Gurutze Gorria	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Emergentziak	112
Hastapen tailerrak	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta	900 840 111 / 016
KZgunea	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Oiarde Kiroldegia	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Etumeta AEK Euskaltegia	607 609 379	Banco Popular Español	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	BBVA	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia	943 361 239	Telefonica	1004
NOAUA! Kultur Elkarte	943 360 321	Euskaltel	900 840 840

Goardiako farmaziak otsailak 20-martxoak 2

Osteguna 20 ACHA-ORBEA Hipodromo etor. 6. Lasarte

Ostirala 21 URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

Larunbata 22 URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

Igandea 23 URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

Astelehena 24 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte

Astearte 25 ORUE Jaizkibel 2. Lasarte

Asteazkena 26 DE MIGUEL Kale Nagusia 32 Lasarte

Osteguna 27 RODRIGUEZ K. Nagusia 42 Lasarte

Ostirala 28 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 1 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte

Igandea 2 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ Garikoitz Aldabe. Perkaiztegikalea 8 (Antziola). Hernani. 943 336 022 22:00 - 09:00

Agenda otsaila

21 ostirala

■ **Sexu genero sistemari buruzko mahaingurua gaztetxean:** 22:00etatik aurrera. Hizlaria: Kattalin Miner.

22 larunbata

■ **Kantu-dantza-jira.** 19:00etan Mikel Laboa plazan. Antolatzailea: Usurbilgo Kantu Taldea.
 ■ **Kontzertu gaua.** Desegin (Usurbil), Cant Explain (Orio) eta MKT (Zarautz). Ondoren, Dj Martx (70-80 hamarkadetako musika). 23:00etan Usurbilgo Gaztetxean.

23 igandea

■ **Herriko ondarea ezagutzeko ibilaldia.** 9:30etik 13:00era. Ibilbidea: Sariolatik hasi eta Aginagan amaitu.

Igande honetan, Aginagako herri ondarea ezagutzeko ibilaldia

Usurbil, Urdaiaga edota Txokoalde lotu zituen azaroko Kulturaldiaren baitan antolatu genuen ibilaldiak. Aginagan amaitu zen. Eta oraingoan, Aginagan izango du abiapuntua eta helmuga. NOAUA! Kultur Elkarteak antolatu duen ibilaldi hau igande goiz partean egingo da. Eta interesa duen edonor ongi etorria izango da.

Aginagako Sariakolan hasi eta herri gunerainoko ibilbidea osatzeko aukera egongo da, Jakoba Errekondo paisajistaren argibideak lagun ditugula. Beste behin, gertuan, etxean bertan ditugun guneak ezagutu eta herri ondareaz zerbait gehiago ikasteko aukera izango dugu hilaren 23an.

Irteeran parte hartu nahi duzuenentzat: otsailaren 23an, goizeko 9:30etan Sariakolan.



Sariolatik abiatuko da ibilbidea eta Aginagako kaxkoan amaituko da.

Datozenak

Datorren asteko Tipi-Tapan, oilaskoz eginiko pintxoak

Martxoaren 2ko Tipi-Tapan, oilasko ziz-mizkalk prestatuko dituzte Txiriboga, Aitzaga, Xarma, Txirristra, Bordatxo, Artzabal eta Txapeldun tabernetan. 2 euroren truke dastatu ahal izango dituzue, ohi bezala, edari eta guzti.

Ez ahaztu Tipi-Tapa txartela eramatea. Txartelik ez baduzue, aipatu edaritegitako batean eskatu. Tabernaz taberna pintxoak dastatzen joan ahala, tabernariari txartelean zigilua jartzeko eskatu eta parte hartu, igandean bertan ospatuko den zozketan.

- Martxoak 2 igandea, goizetik 15:00 arte.
- Pintxoetarako produktua: oilaskoa.
- Tokia: Txapeldun, Artzabal, Xarma, Bordatxo, Txirristra, Aitzaga eta Txiriboga.
- Oharra: 150 euroko erosketa balearen zozketa, Bordatxon.
- Antolatzailea: Hurbilago Elkarte.

Euskarazko zine zikloa, azken txanpan

Hurrengo asteotan, Udalak antolaturiko azken bi filmen proiektzioa; haurrena, "Ahmed, Alhanbrako printzea" martxoaren 2an, 17:00etan Sutegin. Martxoaren 9an helduena, "Zorion perfektua".

Cant Explain, MKT eta Deseginen kontzertua Usurbilgo gaztetxean

Cant Explain (Orio), MKT (Zarautz) eta Desegin talde usurbildarrak joko dute larunbat honetan gaztetxean, 23:00etatik aurrera. Deseginek grabatua duten lehen diskoko abestiak joko dituzte estreinakoz. "Kaos I Lentejas" jaialdia finantzatzeko kontzertu gaua izango da larunbat honetakoa.

Larunbateko kantu jiran dantzariak ere hartuko dute parte

Hilabeteko azken larunbatarekin atera ohi dira kalejiran Kantu Taldekoak. Larunbat honetan ordea, eskaintza aurrekoetan baino osatuagoa izango da. Dantzak ere bere tokia izango duelako kantu-jiran. Ohi bezala, arratsaldeko 19:00etan abiatuko dira Mikel Laboa plazatik. Herritar orok har dezake parte.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea **943 363 348 - 609 888 021**

txirriStra
TABERNA



-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

OSASUN GIDA 2014



USURBIL
OPTIKA

Eritzumenerako aparatua • Igeriekuko tapoiak neumra eginda
BEHERAPENAK eguzkitako betaurrekotari

Zubiaurenea, 10 • ☎ 943 370 269 • 675 708 654

50€-ko
BALEA

DSQUARED, TOMFORD,
DIOR eta ARMANI markako
monturetan



Ibaiondo

Fisioterapia
Osteopatia
Errehabilitazioa
Masajeak

Ola Kalea, 12 - behea, ezk. LASARTE - ORIA Tel / Faxa: 943 370 306

Kima
MASAJE LEKUA

• Kirol masajea
• Masaje terapeutikoa
• Kolonaren hidroterapia
(idortasuna eta haize arazoak hobetzeko)

☎ 943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

Öinutsik

podologia zentroa

Puntapax 6B, behea ezkerre - Tel. 943 11 09 54

- ✓ Kiropodiak
- ✓ Azterketa biomekanikoak
- ✓ Plantilak
- ✓ Papilomak
- ✓ Erreflexoterapia



Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua

Dermofarmazia

Produktu homeopatikokoak

Maisu formulak



Barda berri 7, 20770 LORRIBIL 943 36 33 95

www.iturraldebotika.com

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL

URDAIRA
Sagardotegia
astelehenak itxita **Aginaga 943 37 26 91**

OTSUA-ENEA
SAGARDOTEGIA
943 55 68 94
Osinaga bailara, **HERNANI**

LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA
Urtarriletik maiatzak 5era
TXOTX-GARAIA
Hernanitik autobus zerbitzu propioa
Astelehenetan ITXITA
Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hernani
Tel: **943 55 58 46** Mugik: **616 287 867**

iruín
sagardotegia
☎ **943 36 12 29**
Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta **USURBIL**
www.iruinsagardotegia.com | www.astazaransagardoak.com

ELUTXETA
SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA
Urte guztian irekita astelehena izan ezik.
Oztaran bailara • **URNIETA (Gipuzkoa)** • ☎ **943 55 69 81**

SAIZAR
Sagardotegia
Kale-zahar auzoa, 39
USURBIL
Sagardotegiko erreserbak:
943 37 39 95
(Igande gaua eta astelehen eguerdia itxita)
www.sidrassaizar.com

SAGARDOTEGIA
aginaga Hotela **
URTE OSOAN
ETXEKO SAGARDOA
TXOTXETIKI
ORAIN, BERTAN LOTAN
GELDITZEKO AUKERA!
ASTELEHENETAN ITXITA
943 36 67 10
Aginaga, **USURBIL** www.aginagasagardotegia.com

Txotxetik sagardoa jarraitu usadioa!
%100 bertako sagarra
AIALDE BERRI
Tel: **943 365 031**
Santuenea